

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko bai zik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a') %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalotasun gradua aintzatesi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretakoa batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b') %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa.—Indargabetu egiten dira foru arau honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

Bigarrena.—Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren 27. artikulua indargabetu da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—*Indarrean jartzea*

Foru arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, artikuluetan ezarritako berariazko ondorioak gorabehera.

Bigarrena.—*Gaikuntza*

Baimena ematen zaio Foru Aldundiari foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2010.eko abenduaren 22an.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,
INÉS NEREA LLANOS GÓMEZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,
ANA MADARIAGA UGARTEK

(I-1770)

5/2010 FORU ARAUA, abenduaren 22koa, «BizkaikOA» enpresa-erakunde publiko forala sortzen duena.

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2010eko abenduaren 22ko Osoko Bilkuran «BizkaikOA» enpresa-erakunde publiko forala sortzen duen abenduaren 22ko 5/2010 Foru Araua onartu dutela. Halaber, hura aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu dakiekeen herritar, partikular eta agintari guztiek bete eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2010eko abenduaren 23an.

Bizkaiko Ahalduen Nagusia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

«e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del Anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

a') Aquellas personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento e inferior al 65 por ciento que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de discapacidad o que obtengan 7 ó más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

b') Aquellas personas con un grado de discapacidad igual o superior al 65 por ciento.

A las personas incluidas en las letras a') y b') anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo III del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.»

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.—Quedan derogadas todas las disposiciones que se opongan a lo establecido en la presente Norma Foral.

Segunda.—Queda derogado el artículo 27 de la Norma Foral 9/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—*Entrada en vigor*

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» con efectos desde el día 1 de enero de 2011, sin perjuicio de los expresos efectos previstos en su articulado.

Segunda.—*Habilitación*

Se autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Bilbao, a 22 de diciembre de 2010.

Secretaria Primera de las Juntas Generales,
INÉS NEREA LLANOS GÓMEZ

Presidenta de las Juntas Generales,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1770)

NORMA FORAL 5/2010, de 22 de diciembre, de creación de la entidad pública empresarial foral «BizkaikOA».

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 22 de diciembre de 2010, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 5/2010, de 22 de diciembre, de creación de la entidad pública empresarial foral «BizkaikOA», a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

Bilbao, a 23 de diciembre de 2010.

El Diputado General de Bizkaia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

HITZAURREA

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikotako Foru Erakundeen arteko harremani buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/83 Legeak (LHL) hainbat eskumen eskusibo ematen dizkie lurralde historikotako organoei; besteak beste, honako hau: lurralde historikoa erantzuten interesa izan dezaketen kultura-erakundeak sortzea eta horiei eustea (lege horretako 7. a). 13 artikulua).

Ildo horretan, Kulturako Foru Sailaren egitura organikoaren araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2006ko uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuaren 1. artikulua Foru Aldundiko Kultura Sailaren eskumenen barruan kokatzen ditu honako eginkizun edo arlo hauek:

a) Bizkaiko historia eta kulturaren aldetiko legatua, beraren agerkeria guztietan, ezagutu, zaindu eta zabaltzea; horrezaz gainera, ekintza eta egitarau guztiak burutzea, legatu hori hurrengo belaunaldiei modurik egokienean jakinarazteko beharrezkoak badira.

b) Bizkaia kultura-ekipamenduen mapa sustatzea; plan-gintza horren arabera, geure gizarteak bere burua garatzeko beharrezko duen azpiegitura izango du; eta hori guztia egiteko, abiaburu hau hartuko da oinarria: kultura hiritar guztien esku jarri behar den ogasuna da.

c) Geure gizartea bezalakoek dituzten museo, agiritegi eta liburutegi ekipamenduekin erkatze modukoak direnak sortu eta zaintzea.

d) Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, geure kulturaren jakite eta garapena ahalbidetuz, eta Bizkaiko gizartea kultura guztiak jasotzeko prest egon dadila lortuz.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeek beti izan dute ardura berezia euren jardunean, Bizkaiko kultura-ondare aberatsa egokiro kudeatzeko.

Ildo horretan, 2009an, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak lankidetzat bilatu zuen kulturaren gaineko aholkularitzan mundu osoan itzal handieneko erakundeetako batekin, Bizkaian kultura-ondarearen ezagutzak duen egoeraren diagnostia egiteko, batetik, eta, bestetik, arlo horretan gerora jarduteko proposamen bat egiteko. Hala, bada, Bizkaiko kultura-ondarea ezagutarazteko azpiegiturak aztertu ziren (hots, museoen eskaintza, arloaren adierarik zabalenean: foru erakundeak —Aldundia titular bakarra dutenak edo titulartasun partekatukoak—; Foru Aldundiak diruz lagundutako erakunde pribatuak, Bizkaiko kultura-ondarea ezagutarazte helburu dutenak; abangoardiako artea, eta baita Aldundiko Kultura Sailaren barne egitura ere, kultura ondareari dagokion aldetik). Gero, analisi horren emaitzak xeheki aztertu ziren, erreferentziatzeko kudeaketa-ereduekin alderatuta, eta ondorioa izan zen beharrezkoa zela Bizkaiko erakunde edo azpiegitura guztien kudeaketaz arduratuko den unitate bat sortzea. Unitate horrek erakunde-azpiegitura horien kudeaketa eraginkorragoa egin beharko luke, eta Bizkaiko Foru Aldundiak haietan guztietan egiten duen inbertsioa maximizatu.

Izan ere, museoen arloko 40 bat azpiegitura edo erakunde oinarri hartuta (eta arloa adiera zabalean ulertuta, hots, haien artean sartuta erakusketa zentroak, interpretazio zentroak eta museo egin diren zein egin ez diren aztarnategiak), detektatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren garrantzia pixka bat lausotuta geratzen dela azpiegitura horiek sortu eta kudeatzeko proiektuetan, nahiz eta foru erakundeak izan haietako askoren berme, Bizkaian dauden museoen %60rekin baino gehiagorekin konpromiso ekonomikoa hartu eta konpromiso horri denboran iraunarazten baitio Foru Aldundiak.

Arlo horretan aditua den kanpoko firma garrantzitsu horren azterketa laburbilduz, hona hemen funtsezko arrazoiak, Bizkaian Aldundiaren egitura administratibotik kanpoko kudeaketa unitate berezi bat sortzeko:

«— Museo asko egotea Bizkaian, bai orokorrean hartuta (Bizkaia hamargarren probintzia da Estatu espainiarrean museoen kopuruari dagokionez) bai proportzioan (museoen proportzioa lurraldearen azalerari dagokionez).

— Dauden azpiegituren sakabanaketa handia eta dibertsitatea.

PREÁMBULO

La Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y Órganos Forales de los Territorios Históricos —conocida como LTH— atribuye a los órganos de los Territorios Históricos competencia exclusiva, entre otras, en materia de «creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico» (art. 7.a).13 de tal Ley).

En este sentido, el artículo 1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de estructura orgánica del departamento foral de Cultura, instaura como funciones o materias cuya competencia se hace residenciar en el mencionado departamento de Cultura de la Institución Foral, las de:

a) Conocer, conservar y difundir el legado histórico-cultural de Bizkaia en todas sus manifestaciones y desarrollar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras.

b) Promover el mapa de equipamientos culturales de Bizkaia, de modo que las demandas culturales de nuestra sociedad dispongan de la infraestructura imprescindible para su desarrollo, partiendo siempre del principio de que la cultura es un bien que debe ponerse al alcance de la ciudadanía.

c) Crear y mantener equipamientos museísticos, archivísticos y bibliotecarios homologables a los de sociedades equivalentes a la nuestra.

d) Promover y difundir la cultura en Bizkaia, posibilitando el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y abriendo ampliamente la sociedad vizcaína a todas las culturas.

La preocupación por una gestión adecuada del importante patrimonio cultural de Bizkaia ha sido una constante en la actuación de los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

En este sentido, desde el departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia se recurrió en 2009 a la colaboración con una de las entidades de mayor prestigio en el asesoramiento cultural del mundo para la realización de un diagnóstico de situación de la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia y una propuesta de actuación a futuro en este campo. Así se procedió al análisis de las infraestructuras dirigidas a la difusión del patrimonio cultural en Bizkaia (oferta museística en su sentido más amplio; esto es, entidades forales —de titularidad propia y/o compartida— así como las privadas subvencionadas por la Institución Foral dirigidas a la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia, arte de vanguardia, e incluso la propia estructura interna del departamento foral de Cultura en lo relativo a la gestión del patrimonio cultural) que luego ha tamizado con una comparativa de los modelos de gestión de referencia, concluyendo en la necesidad de creación de una unidad de gestión común a todas esas entidades o infraestructuras de Bizkaia, tanto desde un punto de vista de eficiencia en la gestión de los mismos, como desde la derivada de la maximización de la inversión que en los mismos se realiza desde la Diputación Foral de Bizkaia.

En efecto, sobre la base de aproximadamente 40 infraestructuras o instituciones museísticas (en un sentido laxo; esto es, dando cabida a centros expositivos, centros de interpretación, yacimientos —musealizados o no— y colecciones) se ha detectado la relativa pérdida de protagonismo de la Diputación Foral de Bizkaia en los proyectos de creación y gestión de estas infraestructuras a pesar de ser la propia Institución Foral la garante de buena parte de ellos mediante el compromiso económico adquirido y continuado en el tiempo con más del 60% de los museos (en su sentido amplio, recordemos) existentes en Bizkaia.

Extractando del análisis de esa importante firma externa, especialista en la cuestión, nos encontramos como razones fundamentales de la creación de una unidad de gestión específica en Bizkaia, ajena a la propia estructura administrativa de la Institución Foral:

«— Existencia de un gran número de museos en el Territorio tanto en términos generales (Bizkaia es la décima provincia del Estado español por número de museos) como relativos (sobre-población de museos en relación con la superficie del territorio).

— Elevada dispersión y diversidad de las infraestructuras existentes.

- sektorearen bilakaera handia azken urteotan, eta horrek eskatzen du museoaren eredua sendotzea eta oraingo egoera eta etorkizuneko hazkundea kudeatu, koordinatu eta antolatzea beharra izatea.
 - BFAren zeregina finkatu beharra izatea hurrengoetan:
 - Lurralderako kultura politika eta estrategia zehazteko aitzindar zereginetan.
 - Museoen sektorearekin duen konpromiso argitik BFAk lortutako erretornoa maximizatuko lukeen eragile zereginetan, gero eta garrantzi handiagoa duelako kulturak ekonomikoaren, sormenaren, hezkuntzaren eta gizartearen garapenean.
 - Lurraldeko museoaren eskaintzaren bideratzaile zereginetan —bai Aldundiko museoena zein beste guztiena—, esku-ragarri dauden baliabideen kudeaketa eraginkorra bermatuz (giza-baliabideak, ekonomikoak, hezkuntzakoak, ondarekoak eta bilduma-baliabideak).
 - «Bizkaiko Museok» markaren sortzaile zereginetan, Bizkaiko eta Euskadiko kulturaren garapenean BFAk egindako lan garrantzitsuen bisibilitatea handitzen lagunduz.
- Inguruabar horretan oinarrituta, Bizkaian Kudeaketa Unitatea sortzeak zenbait aukera garrantzitsu eskaintzen dizkio DFBri:
- Lurralde osorako museoaren politika diseinatu eta bideratzea, Bizkaia-aren nortasuna bultzaturik.
 - Gazteria, hezkuntza eta turismo arloekin sinergiak garatzea, elkar lotutako kultura ekimeneen politikak modu zentralizatuan koordinaturik.
 - Museoetara bideratutako ekarpenekin finantziatzen diren inbertsio eta ekimenei buruzko informazio maila handiagoa izatea hasiera baten.
 - Lurralderako zehaztutako museoaren ekimenei buruzko lerro estrategikoak sendotu eta osatzera zuzenduriko luken urtez urteko edo urte askotarako dirulaguntzen politika diseinatzea.
 - BFAk parte hartzen duen museo guztien identitate zehatza (eta/edo horiei lotutako kultura marka) sortzea.
 - Bateria gaitan garapena edo berrikuntza lantzeko arloko mahaia sortzea.
 - Bideratutako baliabideak modu eraginkorrean administrazioa.
 - Lurralde guztirako behar izan daitezkeen inbertsioak aurretiaz planifikatzea.
 - Guztientzako moduko zenbait zerbitzutarako —esaterako mantenimendua, segurtasuna, garbiketa, hornikuntza, publizitatea, etab— erosketa-zentral moduan aritzea, prezioei buruz negoziatzeko gaitasunarekin.
 - Beste erakunde edo agente batzuekin, esaterako Eusko Jaurlaritzarekin, bitartekari izatea: parte hartzen duen museo guztiek jarrera berbera izatea.»

Gomendio hori oinarri hartuta, ondorioz atera da egoki eta beharrezkoa dela enpresa-erakunde publiko foral bat eratzea, Bizkaiko kultura-ondarea ezagutarazteaz arduratuko dena.

Eskaera horri egokien erantzuteko tresna gisa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 26ko 5/2006 Foru Arauko 4. artikuluan xedatzen den figura aukeratu da: enpresa-erakunde publiko forala. Izan ere, egitasmo horrek dituen baldintzek, eta batez ere langileei dagozkienek, hala izan dadila eskatzen dute, zeren ikusten baita etorkizunean erakunde horretako giza baliabideak bi arlotako langileez hornituko direla: gaur egun Kultura Sailari atxikitako funtzionarioez eta sail horri atxikitako foru erakundeetako lan-kontratudun langileez (hasieran, Sala de exposiciones Rekalde SL enpresakoak).

Erakunde berri hori zuzenbide pribatukoa izango da, irabazteko asmorik gabekoa, berezko nortasun juridikoa eta ahalmen juridiko osoa izango dituen, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari atxikia. Horrez gainera, asmoa da erakunde hori izatea Bizkaiko Batzar Nagusietan oraintsu aurkeztu den «Sala de exposiciones

- Rápida evolución del sector en los últimos años que implica la necesidad de consolidar el modelo museístico y desarrollar mecanismos que permitan gestionar, coordinar y ordenar la situación actual y el crecimiento futuro.
- La necesidad de fijar el papel de la DFB como:

- Líder en la definición de la política y estrategia cultural del Territorio.
- Agente que maximice el retorno que la DFB obtenga por su elevado compromiso con el sector museístico, dado el importante papel que cada vez más el sector de la cultura juega en el desarrollo económico, creativo, educativo y social.
- Articulador de la oferta museística del territorio —tanto la propia como la del conjunto—, asegurando una gestión eficiente de los recursos disponibles (económicos, humanos, educativos, patrimoniales y de colecciones).
- Creador de la marca 'Museos de Bizkaia' que permita incrementar la visibilidad del papel fundamental que juega la DFB en el desarrollo cultural de Bizkaia y Euskadi.

En base a este contexto, la creación de una Unidad de Gestión en Bizkaia ofrece una serie de oportunidades muy importantes para la DFB:

- Diseñar y articular una política de museos para el conjunto del territorio potenciando el carácter distintivo de Bizkaia.
- Desarrollar sinergias con áreas como juventud, educación y turismo, coordinando de forma centralizada las políticas de actuación cultural relacionadas.
- Contar con un mayor grado de información a priori sobre las inversiones y actividades que son financiadas con las aportaciones que realiza a museos.
- Diseñar una política de subvenciones anuales o plurianuales que refuerce y complemente las líneas estratégicas de actuación en museos definidas para el Territorio.
- Crear una identidad definida para el conjunto de los museos en los que participa DFB (y/o una marca cultural asociada).
- Creación de mesas sectoriales de trabajo para el desarrollo o innovación de aspectos comunes.
- Administrar de forma eficiente los recursos dedicados.
- Planificar con antelación las inversiones necesarias para el conjunto del Territorio.
- Actuar como central de compras —con capacidad de negociación sobre precios— para determinados servicios comunes tales como mantenimiento, seguridad, limpieza, suministros, publicidad, etc.
- Interlocutor con otras Instituciones o agentes como Gobierno Vasco: toma de posición común en todos los museos en los que participe.»

Sobre la base de esta recomendación, se ha concluido la oportunidad y necesidad de constituir una Entidad Pública Empresarial Foral (EPEF) dirigida a la atención de la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia.

Se ha optado por la figura de Entidad Pública Empresarial Foral, prevista en el artículo 4 de la Norma Foral 5/2006, de 26 de diciembre, General Presupuestaria, como herramienta idónea para satisfacer esa demanda, ante los condicionantes dados especialmente desde el ámbito de personal ya que la perspectiva de futuro es que en esa entidad se incluya como recursos humanos de la misma tanto funcionarios foral hoy adscrito al departamento foral de Cultura, como personal laboral de entidades forales anexas (inicialmente de la «Sala de exposiciones Rekalde, S.L.»).

Esta nueva entidad de derecho privado, sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica propia y plena capacidad jurídica, adscrita al Departamento de Cultura, de la Diputación Foral de Bizkaia se pretende también se posicione como elemento tractor en aras a la aplicación del Plan estratégico de la propia «Sala de expo-

Rekalde, S.L.» enpresaren plan estrategikoa aurrera eramango duena. Izan ere, Kultura Sailarentzat plan estrategiko hori giltza da Bizkaian abangoardiako artea izango dena bul-tzaberritu eta sustatzeko.

Hain zuzen ere, beste aukera juridiko batzuk baztertu dira, hala nola nortasun juridiko pribatukoak (merkataritzako erakundeak edo fundazio pribatuak) edo nortasun juridiko administratibo publikodunak (foru erakunde autonomiadunak), uste izan baita aukera horiek arlo juridikoan zein antolakuntzan eta funtzionamenduan dituzten baldintzak ez direla egokiak hemen aurkezten denaren moduko enpresa-erakunde publiko foral batek dituen behar eta ahalmenetarako. Erakunde berri horrek ez du inolako irabazteko asmorik, eta ez du inongo beharrik erregimen juridiko administratibo publiko batean txertatzeko, erregimen hori ez baldin bada egokia Bizkaiko kultura-ondarea ezagutarazteko erakundeen kudeaketaz, plangintzaz eta antolakuntzaz arduratuko den erakundearen benetako beharretarako.

Egoera hori ikusita, proposamena da enpresa-erakunde publiko foral bat eratzea, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 26ko 5/2006 Foru Arauko 4. artikuluan xedatzen denaren tankerakoa, Bizkaiko kultura-ondarea ezagutarazteko erakundeen eta azpiegituren kudeaketaz, antolakuntzaz, garapenez eta funtzionamenduaz arduratuko dena, eta BizkaiKOA, FEED izena izango duena.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.—*Eraketa*

«BizkaiKOA» eratu eta sortu da, zuzenbide pribatuak araututako izaera publikoko erakunde gisa, berezko nortasun juridikoa duena; bere xedeak lortzeko gaitasun publiko eta pribatu osoa du, irabaziak lortzeko asmorik gabe, Bizkaian kultura ondarea zabaltzeko zerbitzua kudeatzeko. Foru enpresa-erakunde publiko baten izaera juridikoa du.

2. artikulua.—*Izaera eta araubide juridikoa*

1. BizkaiKOA foru izaki publiko enpresariala erakunde publiko moduan eratu da eta Kulturaren arloan (ondare kulturalaren zabal-kuntza) eskumenak dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren sailari dago atxikita.

2. BizkaiKOA foru izaki publiko enpresariala Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru organoei «Lurralde historikoarentzat interesgarriak diren organismo kulturalen sorkuntza eta mantenua» deritzen arloan aintzatesten zaizkien berariazko eskumenak erabiliz eratu da. Eskumen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bere Lurralde Historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Euskal Legearen 7.a).13) artikuluan eraentzen da, eta baita herri administrazio bakoitzak auto-antolakuntzari dagokionez duen eskumenaren eta indarreko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren 4. artikuluen aplikazioan ere. Organismoa honako Estatutu honetan, aurrekontuei buruzko legerian eta aplikagarriak izango diren gainerako arauetan ezarri denaren arabera eraentzen da. Arau horien ezean antolamendu juridiko pribatua aplikatuko zaio.

BizkaiKOA foru izaki publiko enpresarialari Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeak ezarri duena aplikatuko zaio administrazioa ahalmenak burutzen dituen eta bere organoen borondatearen betearazpenari dagokionez.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan ondare kulturalaren zabalkuntzaren arloan ardua duen Saila izango da BizkaiKOA erakundearen zuzendaritza estrategikoaren eta emaitzen ebaluazio eta kontrolaren arduraduna.

3. artikulua.—*Kudeatzeko autonomia*

Bere funtzioak betearazterakoan BizkaiKOA-k kudeatzeko autonomiarekin jardungo du, hau da, honako Estatutu hauen eta aplikagarria izango den gainerako legeriaren mugen barruan eta, hau guztia gorabehera, bere helburuak beti izango dira interes publikoaren bermea, gizarte bizkaitarraren beharrezko kulturalen ahetasuna eta Bizkaiko jaraunspen historiko-kulturalaren (bere adierazpen guztietan) ezagutza eta zabalkuntza. Horren guztiaren xedea etorkizuneko belaunaldiari transmisio zuzenagoa egiteko beharrezkoak diren jarduerak eta egitarauak garatzea da.

siciones Rekalde, S.L.» recientemente presentado a las Juntas Generales de Bizkaia y que desde este departamento foral se considera pieza clave para el relanzamiento y potenciación del arte de vanguardia en Bizkaia a futuro.

En efecto, figuras jurídicas como las de personalidad jurídica privada (entidades mercantiles o fundaciones privadas) u otras de naturaleza jurídica administrativa pública como organismos autónomos forales se han desechado por considerar que presentan unas exigencias tanto jurídicas como de organización y funcionamiento que no se adecúan a las necesidades y capacidades de una entidad empresarial pública foral como la que se plantea. No se persigue en esta nueva entidad ánimo alguno de lucro ni necesidad de insertarse en un régimen jurídico administrativo público no adecuado a las verdaderas necesidades de esta entidad de gestión, planificación y organización de las entidades de difusión del patrimonio cultural de Bizkaia.

En desarrollo de ese escenario, se plantea la constitución de una Entidad Pública Empresarial Foral, prevista en el artículo 4 de la Norma Foral 5/2006, de 26 de diciembre, General Presupuestaria, para la gestión, organización, desarrollo y funcionamiento de las entidades e infraestructuras de difusión del patrimonio cultural de Bizkaia, bajo la denominación de «BizkaiKOA, FEED».

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.—*Constitución*

Se constituye y crea «BizkaiKOA» como entidad de naturaleza pública regida por el derecho privado, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada para el cumplimiento de sus fines, sin ánimo de lucro, en aras a la gestión del servicio de la difusión del patrimonio cultural en Bizkaia siendo su naturaleza jurídica la de una entidad pública empresarial foral.

Artículo 2.—*Naturaleza y régimen jurídico*

1. La entidad pública empresarial foral BizkaiKOA se configura como entidad de naturaleza pública, adscrita al departamento de la Diputación Foral de Bizkaia competente en materia de Cultura (difusión del patrimonio cultural).

2. La entidad pública empresarial foral BizkaiKOA se constituye en ejercicio de la competencia exclusiva reconocida a los Órganos Forales de los Territorios Históricos de Euskadi en materia de «Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico» a tenor del artículo 7.º a).13 de la vigente Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así como de la competencia de autoorganización propia de cada Administración Pública y en aplicación del artículo 4 de la vigente Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria. Este organismo se rige a tenor de lo establecido en el presente Estatuto y en la legislación presupuestaria y demás normas que le sean de aplicación. En defecto de estas normas, se le aplicará el ordenamiento jurídico privado.

Será de aplicación a la entidad pública empresarial foral BizkaiKOA lo dispuesto en la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, cuando ejerza potestades administrativas y en lo relativo a la formación de voluntad de sus órganos.

3. El departamento titular de las competencias de la Diputación Foral de Bizkaia en materia de difusión del patrimonio cultural será el encargado de la dirección estratégica, evaluación y control de resultados de BizkaiKOA.

Artículo 3.—*Autonomía de gestión*

En el ejercicio de sus funciones, BizkaiKOA actuará con autonomía de gestión, dentro de los límites establecidos en los presentes Estatutos y demás legislación que le sea de aplicación, y teniendo en cuenta, en todo caso, como objetivos la garantía del interés público, la satisfacción de las necesidades culturales de la sociedad vizcaína, así como el conocimiento, y difusión del legado histórico-cultural de Bizkaia en todas sus manifestaciones, de cara a desarrollar cuantas actividades y programas sean precisos para su más correcta transmisión a las generaciones venideras.

4. artikulua.—Abiaturak

BizkaiKOA erakundeak ondoko hauek sustatuko ditu Bizkai-ko ondare kulturalaren arloan: ondarearen zabalkuntza; ondare horren aldeko sentiberatzea eta gizarte mailako sustapena; ondare horren kudeaketa koordinatua, beti ere, bitartekoen eskuragarritasunari dagokionez, eragingarritasunaren oinarritik abiatuta; eta, gure osteko belaunaldiei dagokienez, ondare horren artapena, kontserbazioa, zain-tza, hedakuntza eta sustapena.

II. KAPITULUA

HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

5. artikulua.—Definizioa eta helburuak

1. Honako Estatutu hauen ondoretarako «kultur ondare»-tzat jotzen dira izatera orokorreko azpiegitura guztiak, irabazteko asmorik ez dutenak, jendearentzat irekita daudenak eta gizartearen eta horren garapenaren zerbitzurako direnak. Museo hauetan irizpide zientifikoak, estetikoak eta didaktikoak aplikatuz eta azterketa, hezkuntza, gozamen eta sustapen zientifiko eta kulturalak lortzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko balore historiko, artistiko, arkeologiko, paleontologiko, etnografiko, zientifiko, tekniko, naturaleko edo beste edozein izatera kulturalako multzoak eta/edo bildumak jasotzen, eskuratzen, artatzen, antolatzen, dokumentatzen, ikertzen, zabaltzen eta erakusten dira.

2. BizkaiKOA erakundearen helburuak dira zati baten zein osorik Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren Bizkaiko ondare kulturalaren zabalkuntzarako egitura hauen plangintza estrategikoa, kudeaketa koordinatua, jarraipena, kontrola eta ikuskapen eragingarriak. Halaber, bere helburuak dira Bizkaian kokatuta dauden era horretako gainerako azpiegituren jarraipen eta kontrol eragingarria egitea.

6. artikulua.—Funtzioak

Arestian aipatu diren helburu horietara iristearen ondoretarako ezarri da BizkaiKOA erakundearen funtzioak hauek direla:

- a) Bizkaian ondare kulturala sustatzeko jarduketak proposatzea eta kudeatzea, horien jarraipena egitea eta, hala denean, neurri zuzentzaileak hartzeko proposamenak egitea.
- b) Foru titulartasuneko museoen kudeaketa integrala (gaur egun hauek dira: Gernikako Euskalherria Museoa, Arrantzalearen Bermeoko Museoa, Muskizko El Pobal Burdinola eta Bilbon dagoen Bizkaiko Arkeologi Museoa (BAM)).
- c) Bizkaiko ondare kulturala zabaltzeko adierazgarriak diren foru azpiegitura kultural guztien kudeaketa integrala: Santimamiñeko kobak, Foruko Interpretazio Zentroa, Omako Baso Margotua, Muñatones gaztelua, Herrien Europa Parkea (Gernika), etab.
- d) Bizkaian ondare kulturala zabaltzeko azpiegiturak sustatzea, hala zati baten foru titulartasunekoak direnenak nola titular-tasun pribatukoak eta/edo foru erakundearekin zerikusirik ez dutenenak.
- e) Bilbon kokaturik dagoen foru titulartasuneko Rekalde erakusketa aretoaren kudeaketa osoa.

III. KAPITULUA

GOBERNU ORGANOAK

7. artikulua.—Organo artezkariak

BizkaiKOA foru izaki publiko enpresarialaren organo artezkariak eta administrazio eta gobernu organoak hauek dira:

- A) Lehendakaritza.
- B) Lehendakariordetza
- C) Administrazio Kontseilua.
- D) Zuzendaritza-gerentzia.

Artículo 4.—Principios inspiradores

BizkaiKOA promoverá la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia, su sensibilización y fomento social, su gestión coordinada y bajo un prisma de eficiencia en la disposición de recursos, así como su preservación, conservación, salvaguarda, difusión y fomento de cara a las generaciones venideras.

CAPÍTULO II

OBJETIVOS Y FUNCIONES

Artículo 5.—Definición y Objetivos

1. A los efectos del presente Estatuto se considera «patrimonio cultural», toda infraestructura de carácter permanente, sin fin lucrativo, abierta al público, al servicio de la sociedad y de su desarrollo, que reúne, adquiere, conserva, ordena, documenta, investiga, difunde y exhibe de forma científica, estética y didáctica con fines de estudio, educación, disfrute y promoción científica y cultural, conjuntos y/o colecciones de valor histórico, artístico, arqueológico, paleontológico, etnográfico, científico, técnico, natural o de cualquier otra naturaleza cultural con sede en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Se configuran como objetivos de BizkaiKOA la planificación estratégica, gestión coordinada, seguimiento, control e inspección eficiente de las infraestructuras de difusión del patrimonio cultural de Bizkaia en los que exista titularidad, total o parcial, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como el seguimiento y control eficiente del resto de infraestructuras de este tipo ubicadas en Bizkaia.

Artículo 6.—Funciones

De cara a la consecución de los anteriores objetivos, se establecen como funciones de BizkaiKOA, las siguientes:

- a) Proponer y gestionar actuaciones dirigidas al fomento de la difusión del Patrimonio Cultural de Bizkaia, realizando el seguimiento de las mismas y proponiendo la adopción, en su caso, de medidas correctoras.
- b) Gestión integral de los museos de titularidad foral (en la actualidad Museo Euskalherria de Gernika, Museo Arrantzale de Bermeo, Ferrería del Pobal de Muskiz y Bizkaiko Arkeologi Museoa (BAM) de Bilbao).
- c) Gestión integral de diferentes infraestructuras culturales forales de relevancia en la difusión del patrimonio cultural de Bizkaia: cuevas de Santimamiñe, centro de interpretación de Forua, Bosque animado de Oma, castillo de Muñatones, Parque de Europa de los Pueblos (Gernika), etc.
- d) Fomento de las infraestructuras de difusión del patrimonio cultural en Bizkaia, tanto de titularidad compartida con la foral como los de titularidad privada y/o ajena a la foral.
- e) Gestión integral de la sala de exposiciones Rekalde sita en Bilbao, de titularidad foral.

CAPÍTULO III

ÓRGANOS DE GOBIERNO

Artículo 7.—Órganos rectores

Los órganos rectores, de administración y gobierno de la entidad pública empresarial foral BizkaiKOA, son:

- A) La Presidencia.
- B) La Vicepresidencia
- C) El Consejo de Administración.
- D) La dirección-gerencia.

A) LEHENDAKARITZA

8. artikulua.—Lehendakaritza

Lehendakaritzak erakunde publiko enpresarialaren eskuordetza edukiko du eta erakundeko kide guztiek honako estatutu hauen arabera eta legeak ezarri duenarekin bat hartuko dituen erabakiak bete beharko dituzte. Hau guztia legez aintzatetsita dauden erabaki horiei aurkaratzeko eskubidea gorabehera da.

9. artikulua.—Lehendakartzaren erantzukizuna

FEEParen lehendakaria ondare kulturalaren zabalkuntzaren arloan eskumenak dituen BFAko foru saileko foru diputatu titularra izango da.

